2004

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

Turismo Sailordetza
Viceconsejería de Turismo

n.º 14

# Euskal Turismoaren Txostena
# Informe del Turismo Vasco

## Bisitari atzerritarrak Euskal Herrian
## FRONTUR 2003

## Los visitantes extranjeros en el País Vasco
## FRONTUR 2003



MERKATUAREN AZTERKETA | ANÁLISIS DEL MERCADO

© "Argazki" Eusko Jaurlaritza • Gobierno Vasco / Mikel Arrazola.

Bosgarren urtez jarraian, bilduma honetan Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko Mugarteko Turismo Mugimenduen (FRONTUR). etengabeko estatistikaren ustiapen espezifikoan lortutako 2003. urteko emaitzak aurkezten dira Estatistika hori Turismo Azterlanen Institutuak prestatutakoa da.

*Por quinto año consecutivo se presentan en esta colección los resultados para el año 2003 obtenidos de la explotación específica para la Comunidad Autónoma Vasca de la estadística continua de Movimientos Turísticos en Fronteras (FRONTUR) elaborada por el Instituto de Estudios Turísticos.*

## FRONTUR operazioa

## *La operación FRONTUR*

Txosten honetan dagoen 2003. urteari buruzko informazioa, 2002, 2001, 2000, 1999 eta 1998. urteei buruz zegoenari gehitzen zaio. Hartara, EAE jomugatzat duen atzerriko eskari turistikoaren joera definitzen duten oinarrizko ezaugarri estrukturalen argibide zehatzagoa eduki dezakegu, urte bateko koiuntura zehatza baino zabalagoa.

Eskertzekoa da, beste urte batez, Turismo Azterlanen Institutuarengandik jasotako laguntza, Erakundeak eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak sinatutako Lankidetza Hitzarmenaren esparruan. Horri esker, turismo-arloari buruz Estatuko estatistika-esparruan dagoen estatistika sendoenetako baten base-fitxategiak baliatzeko modua izan dugu.

*La información contenida en este informe relativa al año 2003 se viene a sumar a la ya disponible de los años 2002, 2001, 2000, 1999 y 1998 para dibujar una imagen precisa de los rasgos estructurales básicos que definen el comportamiento de la demanda turística extranjera con destino al País Vasco al margen de la coyuntura concreta de un año.*

*Es necesario, agradecer un año más la colaboración prestada por el Instituto de Estudios Turísticos en el marco del Convenio de Colaboración suscrito entre el propio Instituto y el Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, en virtud del cual ha sido posible acceder a los ficheros de base de una de las estadísticas más robustas del panorama estadístico nacional en el ámbito del turismo.*



**Fitxa teknikoa:**

FRONTUR-en estatistika, Espainiako Estatura muga askotatik hilero-hilero datozen turismo-fluxuen neurketarako oinarrizko iturri ofiziala da. Etengabea da eta 2001-2004ko Estatistika Plan Nazionalaren barnean kokatzen da (348. zk. du).
Argitalpen honetan aurkeztutako taulak egiteko informazioa, EAE aireportuz eta errepidez bisitatu duten bidaiariei Espainiako Estatuko sarreretan egindako inkestatik dator: 10.000 baino gehiago egin dira.

***Ficha técnica:***

*La estadística de FRONTUR es la fuente oficial básica para la medición de los flujos turísticos que llegan a España mes a mes por las distintas fronteras. Tiene carácter continuo y forma parte del Plan Estadístico Nacional 2001-2004 con el N.º 348.*
*La información utilizada para la realización de las tablas que se presentan en esta publicación procede de las encuestas realizadas a los viajeros en las entradas a España que visitaron el País Vasco por aeropuerto y carretera. Para ello se han realizado más de 10.000 encuestas.*

# Atzerrian bizi eta EAE aukeratu duten bisitarien tipologia

# *Tipología de visitantes residentes en el extranjero con destino en el País Vasco*

EAE aukeratu duten bisitari-motak. 2000-2003 urteen arteko bilakaera
*Tipo de visitantes con destino en el País Vasco. Evolución anual 2000 - 2003*




**Iturria*/Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAEk 2003an atzerritarren 7,8 milioi bisita izan ditu eta, beraz, 2002 urtearekiko %7ko hazkundea nabarmena da. Hamarretik ia bederatzi, 6,9 milioi, txangozaleen edo eguna pasatzera etorritako bisitarien bidaiak izan ziren. Aldiz, 904.000 turistek gutxienez gau bat eman zuten EAEn.

Azken urtean, atzerriko bisitarien fluxuan emaitza bikaina antzeman da, guztira 520.000 bisitari gehiago izan baitira aurreko urtean baino, eta batez ere txangozaleen hazkundeari zor zaio hori. Urteko etorreren multzoan %88,5 osatzen dute eta, gainera, urte arteko portzentajeetan %7,6ko hazkunde sendoa izan dute (494.000 txangozale-bidaia gehiago). Turistetan, halaber, askoz gutxiago bada ere (%11,5), joera ona gertatu da, %3ko hazkunde arinaz (25.000 turista gehiago). Urtez urte gure erkidegoan atzerriko txangozaleek garrantzi itzela hartu dute eta hori da, zalantzarik gabe, gure eskari turistikoaren ezaugarri adierazgarrienetako bat. Hori estatu arteko mugaren bi aldeen artean dagoen harreman handiaren erakusgarria da, hala maila profesionalean nola maila pertsonalean eta afektiboan, baita turismo-erakarmen handiarena ere.

*El País Vasco ha registrado durante 2003 7,8 millones de visitas de residentes en el extranjero, con un importante crecimiento del 7% respecto al año 2002. Casi nueve de cada diez, 6,9 millones, corresponden a viajes de excursionistas, o visitantes sin pernoctación, por 904.000 turistas que realizaron al menos una pernoctación en el País Vasco.*

*El excelente resultado observado en los flujos de visitantes extranjeros en el último año, con un total de 520.000 visitantes más que el año anterior, responde sobre todo al crecimiento demostrado por los excursionistas, que con un peso en el conjunto de llegadas del año del 88,5% registraron además un fuerte crecimiento en términos interanuales del 7,6% (494.000 viajes de excursionistas más), aunque los turistas, con un peso mucho menor (11,5%) también registraron un buen comportamiento, con un ligero aumento del 3% (25.000 turistas más). El enorme peso que año tras año tiene en nuestra comunidad el excursionismo extranjero es sin lugar a dudas uno de los rasgos más significativos de nuestra demanda turística, reflejo por un lado del enorme grado de interrelación existente entre los dos lados de la frontera vasco-francesa tanto a nivel profesional como en el ámbito de lo personal y afectivo, y por el otro de su enorme atractivo turístico.*

EAE aukeratu duten bisitari-motak. Estatua - Euskal Autonomia Erkidegoa alderatua 2000-2003
*Tipo de visitantes con destino en el País Vasco. Comparación Estado - C.A. País Vasco 2000 – 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Zeharo desberdinak dira Euskal Herrira iritsitako bisitarien egitura eta Estatura iritsitakoena. Estatuan turismoa gailentzen da txangozaleen aldean (txangozaleak %35 baino ez dira).

Azken urteotan, gainera, egitura horrek bere horretan iraun du bi inguruneotan. Fluxu finkatuak dituzten egiturak diren aldetik, ezin da aurreikusi hurrengo aldietan aldaketa nabarmena egongo denik.

*La estructura de visitantes extranjero en el País Vasco difiere absolutamente de la que presenta el Estado, en el que se da un gran predominio del turismo sobre el excursionismo (solo alrededor del 35% de excursionistas).*

*Durante los últimos años, además, esta estructura se ha mantenido estable en ambos entornos. En tanto que se trata de estructuras sujetas a flujos consolidados, no es de prever un cambio sustancial en próximos periodos.*





2002an turismoa jabetu egin zitzaion txangozaletasunari, baina 2003an berriz ere txangozaleek gehiago izan dira gaua igarotzen duten bidaiariak baino. Turismoak, aireportu bidezko bidaiarietan egin du gora, arinki bada ere; izan ere, horien artean, txangozaletasunik ez da ia.

Hargatik, turistentzat ere EAErako sarbide hori bigarren mailakoa da, errepidea da nagusi. Soilik lau turistatik batek darabil hegazkina EAEra etortzeko.

Aireportua gutxienek baliatzen dute bisitarien garraioan. EAEk ez ditu distantzia ertain edo luzeko bidaiariak erakartzen eta merkatu horiek, artean, ez dira ustiatu.

*Tras un año, 2002, en que aumentaba el turismo sobre el excursionismo, 2003 vuelve a consolidar el predominio de éste sobre el viajero con pernoctación. El turismo tan solo crece, ligeramente, entre los viajeros vía aeropuerto, entre los que el excursionismo es prácticamente inexistente.*

*Pese a ello, esta vía es secundaria también entre los turistas como acceso hacia el País Vasco respecto a la carretera. Solo uno de cada cuatro turistas utiliza el avión para llegar al País Vasco.*

*La vía aeroportuaria es minoritaria en el transporte de visitantes. El País Vasco no atrae viajeros de media o larga distancia, mercados que a este efecto se mantienen sin explotar.*

EAE aukeratu duten bisitari-motak, erabilitako garraio-motaren arabera. 2000-2003 urte arteko bilakaera
*Tipo de visitantes con destino en el País Vasco por modo de transporte. Evolución anual 2000 - 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

# EAE aukeratu duten turistak

# *Turistas con destino en el País Vasco*

## Garraiobidea

## *Modo de transporte*

2003k azken urteotako bidaiarien hazkunde etengabeko dinamikari eutsi dio, 2000n aurreko urtearen aldean izandako geldialdiaren ondoren. 2003. urtean, ordea, adierazgarriena aireportu bidezko bisitarien gorako joera da. Bi urte eta erdi igaro dira S-11ko atentatuen ostean uneko dinamika geopolitikoek aire-jarduera erabat baldintzatu zutenetik, eta EAE antzeko bisita-kopurua izaten hasi da, baina txikiagoa, oraindik ere, 2000n izandakoa baino. Hargatik, hil guztietan hazkundea gertatu da bisitetan 2002koekin alderatuz gero.

Urte honetan, aldiz, errepide bidezko turismo-bisitetan geldialdi bat gertatu da, txikia bada ere, baina horrek ez du eragotzi turistetan hazkunde orokorra gertatzea eta bisitetan, oro har, joera ona egotea. Horri buruzko kezka handiena uztail eta abuztuko sasoi-erpinetan izandako beherakada nabarmenek eragin dute, %4 eta %12koak, hurrenez hurren; opor-turismoari kalte egiten diote bereziki eta, oro har, urteko bigarren erdiari; hasierako hilabeteetako joera-lerroa, berriz, goranzkoa da argi eta garbi.

*2003 continúa la dinámica marcada por los últimos años de sucesivos incrementos en los volúmenes de viajeros, después del estancamiento sufrido en 2000 respecto al año anterior. Sin embargo, este año este buen comportamiento viene motivado por los visitantes por vía aeroportuaria. Después de dos años y medio, desde los atentados del 11-S, absolutamente condicionado en la actividad aérea por las dinámicas geopolíticas existentes, el País Vasco vuelve a mostrar volúmenes de visitas similares, aunque aún inferiores, a los disfrutados en 2000, con incrementos en todos los meses en relación a las visitas de 2002.*

*Este año, por el contrario, las visitas turísticas por carretera han sufrido un estancamiento, leve en cualquier caso, que no ha impedido el incremento global de turistas y el buen comportamiento general de éstas. La mayor nota de preocupación a este respecto viene dada por los fuertes decrementos sufridos en los picos estacionales de julio y agosto, del 4% y 12% respectivamente, que afectan de modo especial al turismo vacacional, y en general en la segunda mitad del año, frente a la línea marcadamente ascendente de los meses iniciales.*



EAEko turismoaren joera argi eta garbi urte-sasoikoa da, nagusiki sarbidetzat errepidea duenean; izan ere, uztail eta abuztuko hilabeteek 2003ko bisiten %40 bildu dituzte. Urte-sasoikotasun horren arrazoia turismo horren profila nagusiki oporretakoa izatea da.

Aireportu bidezko bisitek ere udan dituzte erpinak, baina bisiten hilabete arteko aldeak %50 eskasekoak dira eragin handieneko eta txikieneko hilabeteen artean. Aldiz, errepidez, abuztuak otsailak baino lau aldiz bidaiari gehiago dauzka.

Nabarmentzekoa da 2003ko bigarren erdian izandako joeraren aldaketa, errepidez 48.296 bidaiari gutxiago egon baitziren 2002ko aldi berarekin alderatuta (hasiera, ordea, ona izan zen, aurreko urtean izandako kopuruak gainditu baitziren).

*El comportamiento turístico en el País Vasco manifiesta un perfil claramente estacional, especialmente acusado cuando la vía de acceso es la carretera, para la que los meses de julio y agosto recogen casi el 40% de las visitas en 2003. Esta estacionalidad viene fundamentada en el perfil prioritariamente vacacional de este turismo.*

*Las visitas por aeropuerto también presentan picos veraniegos, pero las variaciones máximas por mes en las visitas apenas superan un 50% entre los meses de menor y mayor incidencia, cuando en carretera agosto presenta cuatro veces más viajeros que febrero.*

*Es destacable el cambio de tendencia registrado en la segunda mitad de 2003, con descenso de 48.296 viajeros por carretera respecto al mismo periodo de 2002, tras un buen comienzo inicial en que se superaban los volúmenes registrados durante el año anterior.*

AEA aukeratu duten turistak, garraiobidearen arabera. 2001-2003, hilen arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por modo de transporte. Evolución mensual 2001 - 2003*

| | | Guztira / *Total* | Sarbidea / *Vía de acceso* | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Errepidea / *Carretera* | Aireportua / *Aeropuerto* |
| 2001 | **Guztira / *Total*** | **734.304** | **484.941** | **249.363** |
| | Urtarrila/*Enero* | 30.521 | 14.308 | 16.213 |
| | Otsaila/*Febrero* | 31.368 | 14.175 | 17.193 |
| | Martxoa/*Marzo* | 40.035 | 24.309 | 15.726 |
| | Apirila/*Abril* | 58.149 | 31.207 | 26.942 |
| | Maiatza/*Mayo* | 54.648 | 33.757 | 20.891 |
| | Ekaina/*Junio* | 60.879 | 40.353 | 20.526 |
| | Uztaila/*Julio* | 109.280 | 79.622 | 29.658 |
| | Abuztua/*Agosto* | 132.205 | 111.057 | 21.148 |
| | Iraila/*Septiembre* | 62.579 | 38.769 | 23.810 |
| | Urria/*Octubre* | 54.520 | 36.313 | 18.207 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 48.760 | 27.546 | 21.214 |
| | Abendua/*Diciembre* | 51.359 | 33.524 | 17.835 |
| 2002 | **Guztira / *Total*** | **878.603** | **660.625** | **217.978** |
| | Urtarrila/*Enero* | 35.859 | 20.689 | 15.170 |
| | Otsaila/*Febrero* | 40.444 | 26.479 | 13.965 |
| | Martxoa/*Marzo* | 48.574 | 32.154 | 16.420 |
| | Apirila/*Abril* | 52.107 | 36.048 | 16.059 |
| | Maiatza/*Mayo* | 52.996 | 35.208 | 17.788 |
| | Ekaina/*Junio* | 71.793 | 54.123 | 17.670 |
| | Uztaila/*Julio* | 152.620 | 128.206 | 24.414 |
| | Abuztua/*Agosto* | 180.984 | 155.321 | 25.663 |
| | Iraila/*Septiembre* | 75.273 | 54.433 | 20.740 |
| | Urria/*Octubre* | 66.953 | 48.692 | 18.261 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 42.869 | 27.353 | 15.516 |
| | Abendua/*Diciembre* | 58.131 | 41.919 | 16.212 |
| 2003 | **Guztira / *Total*** | **904.144** | **653.706** | **250.438** |
| | Urtarrila/*Enero* | 51.373 | 34.593 | 16.780 |
| | Otsaila/*Febrero* | 43.645 | 29.355 | 14.290 |
| | Martxoa/*Marzo* | 52.132 | 34.624 | 17.508 |
| | Apirila/*Abril* | 70.109 | 47.471 | 22.638 |
| | Maiatza/*Mayo* | 73.862 | 49.282 | 24.580 |
| | Ekaina/*Junio* | 69.486 | 49.713 | 19.773 |
| | Uztaila/*Julio* | 149.048 | 122.872 | 26.176 |
| | Abuztua/*Agosto* | 157.792 | 130.959 | 26.833 |
| | Iraila/*Septiembre* | 80.372 | 54.373 | 25.999 |
| | Urria/*Octubre* | 51.475 | 31.898 | 19.577 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 48.564 | 30.7884 | 17.780 |
| | Abendua/*Diciembre* | 56.286 | 37.782 | 18.504 |

**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAEko turismoak aurreko urteetan izandako bizitasunari eutsi dio, 2002an izandako parametroak gainditzen dituela, urte horretan aurreko urteen aldean, bisiten hazkunde nabarmena egonda ere.

Bizitasun hori aireportu bidezko bisitetan geratu da agerian bereziki, baina baita errepide bidezkoetan ere, urtearen bigarren erdian joera hori hautsi egin den arte. 2003ko lehenengo sei hilabeteek 60.000 bisita gehiago bildu dituzten arren, urte arteko guztizko hazkundea 25.541 bidaiarikoa besterik ez da izan.

*El turismo en Euskadi continúa con la vitalidad mostrada en años anteriores, superando los parámetros mostrados por 2002, un año que supuso un incremento notable de visitas respecto a años anteriores.*

*Esta vitalidad se manifiesta de manera especial en las visitas por aeropuerto, pero también entre las visitas por carretera, hasta la ruptura de la tendencia registrada en la segunda mitad de año. Los seis primeros meses de 2003 acumulan cerca de 60.000 más, para un incremento interanual final de solo 25.541 viajeros.*



EAE aukeratu duten turistak, garraiobidearen arabera.
2000 – 2003 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por modo de transporte.*
*Evolución anual 2000 - 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Turisten hileroko bilakaera, garraiobidearen arabera.
2001-2003
*Evolución mensual de los turistas por modo de transporte.*
*2001 – 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

## Bizilekua

## *Lugar de residencia*

EAE jomugatzat duen nazioarteko turismoa batez ere frantses jatorrikoa da: 2003. urtean etorritako turista atzerritarren %44 frantsesak ziren (eta errepide bidez etorritakoen %58). Merkatu horren pisu erlatiboak gora egin du beste jatorri batzuen aldean (orokorrean %4 eta errepide bidezkoan %3), eta kopurua 2.036 turistatan hazi da. EAEko bidaiari atzerritarren merkatuan, Frantziak duen nagusitasunaren testuinguruan, 2003n areagotu egin da berezitasun hori.

Dena den, Portugalek du handitze erlatibo garrantzitsuena, eta 2002ko guztizko bisiten %5,5etik 2003ko %7 izatera pasa dira. Erresuma Batuak ere turista-kopuruaren ekarpena handitu egin du, 1.480 turista gehiagorekin; horrenbestez, Frantzia ostean, bigarren merkatu izatera pasa da.

*El turismo internacional con destino al País Vasco es un turismo de origen mayoritariamente francés: el 44% de los turistas extranjeros llegados durante el año 2003 fueron franceses (el 58% en el caso de las llegadas por carretera). Este mercado ha aumentado su peso relativo en relación a otros orígenes (un 4% global, y un 3% por carretera), habiendo registrado un incremento en su aporte de 2.036 turistas. En este contexto de primacía absoluta de Francia como el mercado más importante de viajeros extranjeros en el País Vasco, 2003 representa un afianzamiento aún mayor en este rasgo.*

*Portugal es el país que presenta un aumento relativo más importante, pasando del 5,5% de visitas totales en 2002 al 7% en 2003. También Reino Unido ha incrementado su volumen de turistas, con 1.480 turistas más, para afianzarse como el segundo mercado tras Francia.*

EAE aukeratu duten turistak, garraiobide eta bizilekuaren arabera. 2001-2003 urte arteko bilakaera.
*Turistas con destino en el País Vasco por modo de transporte y lugar de residencia. Evolución anual 2001 - 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten turistak, bizilekuaren arabera. 2001-2003 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por lugar de residencia. Evolución anual 2001 - 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Aldiz, Alemaniak atzerakada nabarmena jo du turisten ekarpenean: 2002an baino 8.214 turista gutxiago. Beherakada horrek batik bat errepide bidezko bidaiarietan izan du eragina eta ez hainbeste aireportu bidezkoetan.

Aireportu bidezko bidaiariei dagokienez, edukitako ekarpen garrantzitsuaren arrazoia distantzia luzeko bidaiarien hazkundea da, EAEn betidanik urriak izan direnak. Aldiz, 2003ko bisiten %30 osatu dute eta ekarpen nagusia bihurtu dira. Talde horretan, hazkunde nagusia Ibero Amerikako bidaiarien artean gertatzen da, %80ko urte arteko igoeraz. Erresuma Batua EAErako turisten oinarrizko ekarpen bihurtu da aireportu bidezko etorreren %22 osatuz. Gainera, herrialde hurbilen artean, EAEra sartzeko bisitariek hegazkina errepidea baino gehiago darabilten bakarra da.

Oro har, 2002ko joerak finkatu egin dira, urte horren eta 2001. urtearen artean egondako aldaketa garrantzitsuaren ostean (orduan, bidaiari italiarrak eta Europako Gainontzekoak nabarmen jaitsi ziren, baina joera hori Erresuma Batutik etorritakoek berdindu zuten.

*Por el contrario, Alemania ha registrado un retroceso importante en su aporte de turistas, con 8.214 turistas menos respecto a 2002, con un decremento que afecta principalmente a sus viajeros por carretera y no tanto por aeropuerto.*

*En cuanto a los viajeros por aeropuerto el significativo aporte registrado viene determinado por el importante incremento de viajeros de larga distancia, tradicionalmente escasos entre los turistas al País Vasco, pero que con un 30% de las visitas se configura en 2003 como la principal contribución. Dentro de este grupo, el incremente principal se da entre los viajeros iberoamericanos, con una subida interanual del 80%. El Reino Unido, con un 22% de los aportes vía aeropuerto, se asienta en su estabilidad como un aporte básico de turistas al País Vasco. Es además, de entre los países cercanos, el único cuyos visitantes recurren más al avión que a la carretera para acceder a Euskadi.*

*En términos generales, se afianzan las tendencias de 2002, después de un cambio sustancial en el reparto de pesos entre este año y 2001 que venía a suponer un descenso significativo de viajeros italianos y del Resto de Europa, compensado por un aumento entre aquellos procedentes del Reino Unido.*

Errepidez iritsitako turistek aukeratutako lurralde historikoak, bizilekuaren arabera - 2003
*Territorios Históricos de destino de los turistas por carretera según sus lugares de residencia - 2003*

| | Guztira / *Total* | Araba / *Álava* | Gipuzkoa | Bizkaia |
|---|---|---|---|---|
| Frantzia / *Francia* | 100 % | 14 % | 64 % | 22 % |
| Erresuma Batua / *Reino Unido* | 100 % | 2 % | 70 % | 28 % |
| Alemania / *Alemania* | 100 % | 8 % | 76 % | 16 % |
| Italia / *Italia* | 100 % | 5 % | 78 % | 16 % |
| Portugal / *Portugal* | 100 % | 19 % | 55 % | 27 % |
| Europako gainerakoak / *Resto de Europa* | 100 % | 8 % | 58 % | 35 % |
| Beste herrialde batzuk / *Otros países* | 100 % | 9 % | 69 % | 22 % |

**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Gipuzkoak jasotzen du EAErako turismo-fluxuaren gehiengoa; gero, Bizkaiak eta, geroago, alde nabarmenaz, Arabak. Gipuzkoak atzerriko merkatuei buruz duen erakarmena %60tik gorakoa da, salbu eta Portugali eta Europako Gainontzeko Herrialdeei dagokienez, apur bat beherako baitaude. Alemaniarrak eta, bereziki, italiarrak, zentzu horretan, eredugarriak dira; izan ere, EAEra iristen diren errepide bidezko lau turistatik hiru Gipuzkoan geratzen dira.

*Gipuzkoa concentra la mayoría de los flujos turísticos que recibe el País Vasco, seguido por Bizkaia y, con gran diferencia, Araba. Los porcentajes de atracción de mercados extranjeros de Gipuzkoa superan el 60%, tan solo con la excepción Portugal y de Otros países de Europa, solo ligeramente por debajo. Alemanes y , especialmente, italianos, son en ese sentido paradigmáticos, en tanto que más de tres de cada cuatro de sus turistas que llegan al País Vasco por carretera acuden a Gipuzkoa.*

Araba, aldiz, igarobide izaten espezializatuta dago, nazioarteko errepide-sareetan duen kokapena baliatuz. Ez da gai, ordea, turistak beste arrazoiengatik era adierazgarrian erakartzeko. Testuinguru horretan, presentzia benetan garrantzitsu bakarra Portugalgo jatorrikoena da, euren %20 ingurukoa, baita Frantziako jatorrikoena ere, Arabak euren bisiten %14 jasotzen baititu.

Bizkaiaren erakarmen-maila Arabaren gainetik dago beti, eta Europako Gainontzeko Herrialdeak, Portugal eta Erresuma Batua nabarmentzen dira bertara jotzeko orduan. Ildo horretan, aipagarria da Portugalgo turisten artean izandako hazkundea; hartara, erakarmenean, gailendu egiten da Arabaren aldean, eta eurek lehenetsitako bigarren lurralde bihurtu da. 2002aren aldean, ia 20 puntu hazi da, batez ere Gipuzkoaren lepotik lortutakoak. Urte arteko beste aldaera garrantzitsu batzuk italiarren eta alemaniarren baitan izandakoak dira; izan ere, 2003an Gipuzkoa gehiago maitatzen jarraitu dutela geratu da agerian (12 eta 13 puntu, hurrenez hurren), batez ere Bizkaiaren lepotik.

Herrika, metropoli-areak, Donostia batez ere eta Gipuzkoaren estatu arteko mugako edo kostako udalerriak dira atzerriko turismoaren jarduerapean gehien daudenak. Frantsesek eta Europako Gainontzeko Herrialdeetako jatorrikoek hausten dute nolabait dinamika hori eta Bizkaiko kostara edo Gipuzkoako barnealdera sartzen.

*Araba, por el contrario, sigue especializada en los tránsitos, aprovechando su ubicación en las redes internacionales de carretera, pero no es capaz de atraer de manera significativa turistas por otros motivos. En ese contexto, solo presenta una presencia realmente importante para viajeros residentes en Portugal, rondando el 20% de ellos, o Francia, con un 14% de sus visitas.*

*Los niveles de atracción de Bizkaia se mantienen siempre por encima de los de Araba, y alcanzan niveles implantación importantes entre los residentes en Otros países de Europa, Portugal y Reino Unido. Destaca en este sentido el incremento registrado de turistas Portugueses, que le sitúa como segundo territorio en sus preferencias superando ahora a Araba en atractivo para ellos. Son casi 20 los puntos de incremento respecto a 2002, en su mayor parte perdidos por Gipuzkoa. Otras variaciones interanuales importantes son las que muestran italianos y alemanes, que exhiben en 2003 una querencia aún mayor por Gipuzkoa (12 y 13 puntos, respectivamente), principalmente a costa de Bizkaia.*

*Por localidades, las áreas metropolitanas, Donostia de manera especial y los municipios costeros o fronterizos de Gipuzkoa son las que recogen la actividad fundamental del turismo extranjero. Solo franceses y residentes en otros países de Europa y extraeuropeos rompen de alguna manera esta dinámica y acceden a áreas de la costa vizcaína o del interior guipuzcoano.*



## Errepidez iritsitako turistek aukeratutako udalerriak, bizilekuaren arabera 2003
## *Municipios de destino de los turistas por carretera según sus lugares de residencia 2003*






















**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.



Donostia da atzerriko turismoaren udalerri hartzaile nagusia, euren jatorria zein den gorabehera.

Frantziarrek, adibidez, jatorri nagusia izanik, bisiten %35 egiten dituzte udalerri horretara. Donostiaz aparte, Bilbo (%19) eta, neurri txikiagoan, Gasteiz (%12) eta Irun (%12) dira nagusiki bilatzen dituzten jomugak. Hala ere, frantsesen bereizgarria jomugen aukera oso sakabanatua egitea da, Gipuzkoako zein Bizkaiko kostara iristen baitira, baita Gipuzkoa barnealdeko zenbait ingurunetara ere.

Errepidez datozen britainiarrek, berriz, are gehiago jotzen dute Donostiara (%45). Bilbora ere joaten dira (%22) eta kostako zenbait herritara: Hondarribira (%6) eta Zarautzera (%5), besteak beste. Ez dira asko sakabanatzen.

Alemaniarren bisita-aukerak antzekoak dira: Donostia gailentzen da (%37) eta beste aukera garrantzitsu batzuk Bilbo (%13), Zarautz (%12), Irun (%9), Hondarribia (%8) eta Gasteiz (%7) dira. Italiarrek samaldan jotzen dute Donostiara (%50); portugaldarrak, berriz, neurri berean banatzen dira hiru hiriburuen eta Irunen artean.

Udalerri txikien eta estatu arteko mugatik urruti daudenean artean, beti Mundaka nabarmentzen da bere nolabaiteko erakarmen etengabeagatik (%1 inguru) jatorria edozein dela ere, salbu eta italiarren eta portugaldarren artean. Europako Gainontzekoek eta Beste Herrialdeek parametro orokorrak jarraitzeko joera dute: Donostia da lehenetsitako jomuga (%40 inguru), Bilbo ere nabarmentzen da (%27 eta %19, hurrenez hurren) eta, euren berezitasuna da Gipuzkoako industria-udalerrietan sakabanatzeko joera handia dutela, adibidez, Arrasatera, Eibarrera, Elgoibarrera, Errenteriara edo Tolosara.

*Donostia se constituye como la localidad diana del turismo extranjero independientemente de su origen.*

*Francia, como principal origen, destina por ejemplo un 35% de visitas de residentes a este municipio. Fuera de éste, Bilbao (19%) y en menor medida, Vitoria (12%) e Irún (12%), constituyen destinos principales muy solicitados. Pero los franceses se caracterizan también por una elevada dispersión en sus destinos, llegando a zonas costeras de Gipuzkoa y Bizkaia, así como a ciertas áreas de interior guipuzcoanas.*

*Los británicos por carretera acuden aún en mayor medida a Donostia (45%), seguido por Bilbao (22%), y algunas localidades costeras, entre las que destacan Hondarribia (6%) y Zarautz (5%). Muestran muy poca dispersión.*

*Los alemanes cuentan con opciones de visita similares, con predominio de Donostia (37%) y elecciones significativas de Bilbao (13%), Zarautz (12%), Irún (9%), Hondarribia (8%) o Gasteiz (7%).*

*Italia se orienta masivamente a Donostia (50%), mientras que los portugueses se reparten por igual en las tres capitales e Irún.*

*Entre los municipios pequeños, y alejados de la zona fronteriza, siempre con mayor presencia, Mundaka goza de una cierta atracción constante, alrededor del 1%, entre los residentes de cualquier lugar, con la excepción de italianos y portugueses. Resto de Europa y Otros países tienden a seguir los parámetros generales, con gran dominio de Donostia como destino preferente (alrededor del 40%), presencia de Bilbao (27% y 19 % respectivamente) y con la particularidad de una elevada acusada dispersión por municipios industriales de Gipuzkoa, como Mondragón, Eibar, Elgoibar, Rentería o Tolosa.*



## Bidaiaren arrazoia

## *Motivo del viaje*

EAE aukeratu duten turistak, bidaiatzeko arrazoiaren arabera. 2001-2003 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje. Evolución anual 2001 - 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Aisialdiagatik egindako bidaiak eta arrazoitzat familia-bisita dutenak urte-sasoikotasun profil nabarmena dute. Bi bidaia-motek, batez ere oporretakoak, udako hilabeteetan dituzte erpinak, abuztuan gehienbat. Familia-arrazoiek, dena den, eguberrietan ere erpinak eragiten dituzte; ez, ordea, aisialdiagatik egindakoek. Halaber, gainontzeko arrazoiek udako sasoiko erpin txiki bat sortzen dute, garrantzi txikikoa bada ere. Guztiz bestelakoa da negozio-arrazoiek eragindakoa, bertan ez baitago sasoien araberako portaera bat.

*Los viajes motivados por ocio y aquellos con trasfondo de visita familiar presentan acusados perfiles de estacionalidad. Ambos, especialmente los vacacionales, presentan picos en los meses veraniegos, sobre todo en agosto, pero las motivaciones familiares generan igualmente picos navideños, ausentes entre los primeros. A su vez, los otros motivos también generan un pequeño pico estacional veraniego, de escasa trascendencia. Caso completamente diferente es el de las motivaciones por negocios, carente de patrones estacionales.*

EAE aukeratu duten turistak, bidaiatzeko arrazoiaren arabera. 2001-2003 hilen arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje. Evolución mensual 2001 - 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten turistak, bidaiatzeko arrazoiaren arabera. Estatua - Euskal Autonomia Erkidegoa alderatuta 2001-2003
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje. Comparación Estado – C.A. País Vasco 2001- 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Bi urtean jarraian, oporrek urte artekoan garrantzi gutxiago eduki dute, familia-arrazoien igoera paraleloaren eskutik. 2003an, berriz, aisialdiak goranzkoari heldu dio EAErako turismo-bisiten eragile nagusi moduan; izan ere, bidaien %57ren arrazoia izan da. Halaber, negozioengatik edo ikasketengatik egindako bidaiek garrantzi handiagoa hartu dute, %21ekoa izateraino.

Kontrako aldean, familia-arrazoiek 2002tik 5 puntu behera egin dute eta bisiten motibazioen %17an geratu dira. Joera horri buruzko adierazgarriena da Estatu osoan izandakoaren alderantzizkoa dela, bertan familiarengatik edo arrazoi orokor pertsonalengatik sortutako bisitak gero eta gehiago baitira. Horri buruz, badirudi motibazio horiek bi eremuotako joera desberdinetan oinarritzen direla: Estatuan, familiagatik eta arrazoi pertsonalengatik egindako Latino Amerikako turismoaren eragin nagusia gero eta handiagoa da; EAEn, berriz, berau eta Frantzia lotzen duten familia-harremanen sare-dentsitatearen aldaketak egon dira.

Gainontzeko motibazioetan, Estatuaren eta EAEren artean ez dago urte arteko aldaerarik. Aipatzekoa da, hala ere, opor-arrazoiek garrantzi handiagoa dutela Estatuko bisitetan.

*Tras dos años sucesivos en que los motivos vacacionales cuentan con un menor peso interanual, a costa de un aumento paralelo de los motivos familiares, 2003 se presenta con un repunte de ocio como principal generador de visitas turísticas en Euskadi. Llega a fomentar a un 57% de los viajes. También los viajes por negocios o estudios aumentan su peso, hasta llegar al 21%.*

*Por el contrario, el peso de los motivos familiares desciende 5 puntos desde 2002, para quedarse en un 17% de las motivaciones subyacentes en estas visitas. Lo más relevante al respecto es que esta tendencia es inversa a la registrada en el conjunto del Estado, que cuentan con un número cada vez mayor de visitas generadas por las visitas familiares y los motivos genéricos personales. A este respecto, estas motivaciones parecen sustentarse por tendencias diferentes en ambos ámbitos, la cada vez mayor influencia del turismo latinoamericano, como elemento subyacente principal de los motivos personales y familiares a nivel de Estado, y los cambios en la densidad de red de relaciones familiares que une el País Vasco con Francia, por otro.*

*En el resto de motivaciones, no existen variaciones interanuales entre el Estado y el País Vasco. Merece destacarse, no obstante, la superior prevalencia de los motivos vacacionales como sustentador de las visitas en el Estado.*

EAE aukeratu duten turistak, bidaiatzeko modua eta garraiobidearen arabera. 2001-2003 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje y modo de transporte. Evolución anual 2001 - 2003*




**Iturria*/Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Bidaien motibazioei dagokienez, errepidez edo aireportuz datozen turisten arteko alde nabarmenena, bigarrenen artean lan- eta ikasketa-motibazioek garrantzi handia edukitzea da. Bidaiari-kopuruan soilik pixka bat beherago daude eta errepidean, berriz, familiarengatik edo arrazoi pertsonalengatik datozenak ere negozio-bidaiariei gailendu egiten zaizkie.

Aireportua arrazoi pertsonalengatik gutxi darabilte bidaiariek; izan ere, horietarako harreman-sarea, familia-bisita tarteko dagoenean, Europa barnekoa da, baita nazioarteko bidaia izanda ere distantzia oso laburrekoa.

Aireportuko turisten motibazioen artean ez dago urte arteko aldaerarik; bai, ordea, errepide bidezko bidaiarietan. Azken horietan, opor-arrazoiek gora egiten dute eta arrazoi pertsonalek, berriz, behera.

*La diferencia más importante existente entre los turistas que acceden por carretera o por aeropuerto de acuerdo a las motivaciones de sus viajes reside en la gran importancia que adquieren las motivaciones de trabajo y estudios entre los segundos. Se sitúan solo un poco por debajo en volumen de viajeros, cuando en carretera los viajeros de negocios son superados incluso por aquellos con motivaciones de orden personal o familiar.*

*La vía aeroportuaria es poco utilizada entre los viajeros por motivos personales, dado que la red de relaciones que la sustenta, cuando subyace la visita familiar, es de orden intraeuropeo e, incluso, recluido en distancias muy cortas en términos de viaje internacional.*

*No existen variaciones interanuales en las motivaciones de los turistas aeroportuarios pero sí entre los viajeros por carretera, entre los que crecen las vacaciones y decrecen los motivos personales.*



EAE aukeratu duten turistak, bidaiatzeko arrazoiaren eta bizilekuaren arabera. 2003
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje y lugar de residencia. 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Frantzia da EAEren turista-hornitzaile handia. Bidaian etortzeko orduan, oporrak eta arrazoi pertsonalak nagusitzen dira negozioak baino gehiago. Kontrako aldean, EAEra bertaratzeko, alemaniar bidairientzat negozioak faktore garrantzitsuagoa dira aisialdia baino. Negozioak garrantzitsuak dira, halaber, Europako Gainontzeko eta Portugalgo turisten artean.

*Francia, el gran suministrador de turistas al País Vasco, destaca tanto por los motivos vacacionales como por la prevalencia de los motivos personales sobre los negocios en la generación de sus viajes. En el lado contrario, entre los residentes en Alemania, resultan más importantes los negocios que el ocio como factor motivante entre sus viajeros a Euskadi. También resulta importante su peso entre los turistas del Resto de Europa y de Portugal.*



## Egonaldiaren iraupena

## *Duración de la estancia*

EAEko turismo-bidaien ezaugarri estruktural nabarmenena laburtasuna da. Bidaien erdiak ez dira bi gau baino luzeagoak, eta beste ia %30ek ez dute astebete baino gehiago irauten.

Azken urteotan joera hori handitzen joan da eta, 2002 eta 2003 artean, ia ez du aldaerarik izan, ez bada aipatutako joera hori apur bat alderantzikatu egin dela 16 eta 21 gau arteko egonaldien alde, astebete eta bi aste artekoen kalterako.

Ezaugarri hori Estatuko turismoaren oso bestelakoa da, bertan egonaldien erpina astebetekoa ere izaten baita (%45); gainera, egonaldi luzeagoen kopuru garrantzitsua dago eta, alderantziz, turismo-bisita azkarrak oso urriak. Horrelakoak (batez ere asteburukoak) dira, hain zuzen, euskal merkatuaren bereizgarria bestelako egonaldiak baino gehiago.

*El viaje turístico por el País Vasco tiene como característica estructural más pronunciada su brevedad. La mitad de los viajes no supera a este respecto las dos noches, en tanto que casi otro 30 % no pasa de una semana.*

*Durante los últimos años esta tendencia se ha ido acusando, para mantenerse entre 2002 y 2003 prácticamente sin variaciones, salvo por una pequeña inversión de la tendencia citada a favor de las estancias de entre16 y 21 noches a costa de las situadas entre una y dos semanas.*

*Este es un rasgo que lo separa ampliamente del turismo estatal, con un pico en las estancias de hasta una semana (45%), pero sobre todo con un importante volumen de estancias más largas y, por el contrario, un muy escaso peso de las visitas turísticas rápidas, normalmente de fin de semana, que caracterizan mejor que ninguna el mercado vasco.*

EAE aukeratu duten turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. 2001-2003 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por duración de la estancia. Evolución anual 2001 - 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. 2001-2003 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por duración de la estancia. Comparación Estado - C.A. País Vasco 2001 - 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten turistak, egonaldiaren iraunpenaren eta garraiobidearen arabera. 2001-2003 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por duración de la estancia y modo de transporte. Evolución anual 2001 - 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Aireportu bidezko bidaiarien EAEko gau-igaroaldi ereduek, gau-igaroaldi orokorrak ez bezala (bertan, errepide bidezko bidaiariak nagusitzen dira), batez ere opor-asteburukoak, Estatuko gau-igaroaldi ereduak berdintzeko joera dute; alegia, 3 eta 7 egun arteko egonaldiak nagusitzen dira, atzetik gehienez bi astekoak dituztela, eta iraupen luzeko egonaldietan (22 egun baino gehiagokoetan) goranzko joera bat dago, hiru aste arteko egonaldien gainetik.

Turista-mota horien artean, ez dira batere ohikoak hiru gau baino gutxiagoko igaroaldiak, baina azken urteotan urte arteko hazkunde txiki bat eduki dute, astebete eta bi asteko bisiten gainetik kokatu baitira, hiru urte lehenago, 2000n, hegazkin bidezko turista-kopuru handiena osatzen zuten arren.

Estatu osoarekiko desberdintasun horiek EAEn kopuruan eta garrantzi erlatiboan egonaldi erdi edo luzeko opor-turismo masiborik ez egoteak eragin ditu.

*Los patrones de pernoctación para viajeros de aeropuerto en el País Vasco tienden, al contrario que las generales, dominadas por el viajero de carretera, vacacional de fin de semana fundamentalmente, a igualar los patrones de pernoctación generales del Estado. Esto es, dominan en peso las estancias de entre 3 y 7 días, seguidas por las que alcanzan un máximo de dos semanas, y la existencia de un repunte para las estancias de larga duración, superior a los 22 días, por encima de las que se sitúan en el orden de las tres semanas.*

*Entre estos turistas son muy poco habituales las visitas inferiores a las tres pernoctaciones, aunque durante los últimos años han ido registrando un ligero incremento interanual para irse situando, por peso, incluso por encima de las visitas de entre una y dos semanas, que tan solo tres años antes, en 2000, representaban el mayor volumen de turistas vía avión.*

*Estas diferencias en relación al conjunto del Estado vienen motivadas fundamentalmente por la ausencia en el País Vasco de un turismo vacacional, masivo por volumen y peso relativo, de media o larga estancia.*

## Batez besteko egonaldia

## *Estancia media*

Alde handiz, 2003ko batez besteko egonaldi luzeenak Europaz kanpoko bidaiarienak izan dira (20 egunetik gorakoak). Europarren artetik, soilik italiarrak edo gainontzeko europarrak dabiltza 10 gauren bueltan. Portugaldarrak eta frantsesak ez dira gurean 5 egun ematera iristen, lehenengoak hemendik pasatzean emandako gau-igaroaldien indize altua edukiz eta bigarrenak, berriz, asteburuko aisialdi-turismo oparokoak izanik.

2002arekiko desberdintasun handiak daude.

*Con mucho, las estancias medias más elevadas vienen proporcionadas en 2003 por los viajeros de países extraeuropeos, por encima de los 20 días. De entre los europeos, tan solo italianos o del Resto de Europa rondan las 10 noches. Portugueses y franceses, los primeros con altos índices de transeúntes con pernoctación, y los segundos con abundancia de turismo de ocio de fin de semana, apenas alcanzan los 5 días.*

*Existen grandes diferencias con respecto a 2002.*

EAE aukeratu duten turistak, batez besteko egonaldiaren eta bizilekuaren arabera 2003
*Turistas con destino en el País Vasco por estancia media y lugar de residencia 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

2002 urtearekiko aldaketak EAEko gau-igaroaldien joerak Estatu osokoekin berdindu ditu: herrialdeak batez besteko gau-igaroaldietan ordena berean jarri ditu, eta horietan soilik alde txiki batzuek iraun dute lehengo horretan (herrialde bakoitzeko gau-igaroaldien kopuruan).

Hala Frantziak nola Alemaniak eta Erresuma Batuak, opor-egonaldiek eragindako batez besteko gau-igaroaldi gehiago dituzte Estatuan hemen baino. Europaz kanpoko herrialdeek, berriz, Estatuan EAEn baino 4 gau gutxiagoko batezbestekoa dute.

*El cambio con respecto al año 2002 ha venido a igualar las tendencias de pernoctación del País Vasco a aquellas existentes a nivel estatal, posicionando a los diferentes países en un mismo orden de acuerdo a las pernoctaciones medias y manteniendo únicamente algunas diferencias de orden menor al respecto del número de ellas por país.*

*Tanto Francia, Alemania como el Reino Unido presentan medias de pernoctaciones superiores en el Estado, motivadas por las estancias vacacionales, en tanto que los países extraeuropeos cuentan en el Estado con una media inferior en 4 noches respecto a Euskadi.*

Aireportu bidezko etorrerek, bidaiarien jatorria gorabehera, egonaldi luzeagoak eragiten dituzte lur bidezko sarbideek baino.

Soilik alemaniarren artean da batez besteko egonaldia antzekoa bi sarbide-moten artean, eta Erresuma Batuko jatorrikoek ere gorabehera txikia dute horretan. Alemaniak eragiten ditu errepide bidezko batez besteko egonaldi luzeenak.

Aldiz, italiarrek, frantsesek, portugesek eta, bereziki, beste herrialde batzuetatik etorritakoek oso desberdintasun adierazgarriak dituzte batez besteko egonaldian baliatutako bidearen arabera. Aipatutako azkenek egonaldi egonkorrak eta epe luzekoak edukitzeko joera dute.

*El acceso aeroportuario genera, independientemente del origen del viajero, estancias más largas, que el acceso terrestre.*

*Tan solo entre los alemanes la estancia media entre ambos accesos es parecida, con poca incidencia también entre los residentes en el Reino Unido. Alemania genera las estancias medias más largas por carretera.*

*Por el contrario italianos, franceses, portugueses y, muy especialmente, los procedentes de Otros países presentan diferencias muy significativas en su estancia media dependiendo de la vía utilizada. Estos últimos tienden a generar estancias estables y de larga duración.*

EAE aukeratu duten turistak, batez besteko egonaldiaren eta bizilekuaren arabera. Estatua – Autonomia Erkidegoa alderatuta 2003
*Turistas con destino en el País Vasco por estancia media y lugar de residencia. Comparación Estado – C.A. País Vasco 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten turistak, batez besteko egonaldia, bizileku eta garraiobidearen arabera 2003
*Turistas con destino en el País Vasco por estancia media, lugar de residencia y modo de transporte 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

## Ostatu-mota

## *Tipo de alojamiento*

Hotela da EAE bisitatzen duten turista gehienek lehenetsitako ostatu-mota, %50 baino gehiagok. Hori errepide eta aireportu bidez etorritakoen artean errepikatu egiten da. 2003. urtean, hoteletan ostatu hartzeko joera apur bat suspertu da aurreko urteetan izandako beherakadaren aldean.

Hegazkina darabilten turistek hala hotelak nola doako zein alokairuko etxebizitzak gehiago baliatzen dituzte.

Horri buruz, ez dago urte arteko alde handirik aireportu bidezko bisitarien artean. Aldiz, errepide bidezko bisitarien artean, bestelako ostatuak hartzeko joerak gora egin du etengabe errepide bidezko bisitarien artean; horretan, kanpina aipatzekoa da, doako etxebizitza baliatzearen beherakadarekin batera. Hotel-establezimenduen erabilerak ere gorakada txiki bat izan du 2002aren aldean, eta alokatutako etxebizitza, ostatu hartzeko eskaintza urria izanik, EAEn eskari txikia eragiten du (%3koa).

Alokairuan eskaintza urria egoteaz gain (oso nabarmena Estatu osoarekin alderatzen badugu), EAEren bereizgarria kanpineko eta, oro har, bestelako ostatuen eskaintza handia da. Urtetik urtera, kanpinaren erabilera handitzen doa Estatuaren aldean; gainera, aldi berean, doako etxebizitzaren aldeko lehentasuna berdindu egin da.

Aldea oso handia da, berriz, hotelaren erabilerari dagokionez (hamar puntu baino gehiagokoa), eta horren zergatia iraupen luzeko edo erdiko opor- edo aisialdi-turismorik EAEn ez egotea da.

*El alojamiento hotelero es el preferido por una mayoría de turistas que visitan el País Vasco, superando el 50%. Esto se repite entre aquellos procedentes por carretera y por aeropuerto. En el año 2003 el alojamiento hotelero experimenta una pequeña recuperación frente al descenso que venía soportando en los últimos años.*

*Los turistas que hacen uso del avión generan un mayor peso tanto del hotel como de vivienda gratuita o de alquiler. No existen grandes diferencias interanuales entre los visitantes por aeropuerto a este respecto. Por el contrario, entre los visitantes de carretera se ha dado durante los últimos años un constante incremento de los otros alojamientos, destacándose entre ellos el camping, paralelo de un descenso en el uso de vivienda gratuita.*

*El uso de establecimientos hoteleros también ha subido ligeramente con respecto a 2002, y la vivienda alquilada es un tipo de alojamiento cuya escasa oferta en Euskadi genera una consecuente falta de demanda (3%).*

*Además de la escasez de oferta en alquiler, muy patente si se compara su peso en el conjunto del Estado, el País Vasco se caracteriza por una gran oferta de camping y de otros alojamientos en general. Año a año, la diferencia en su uso se va agrandando con respecto al Estado, al tiempo que se iguala la preferencia por la vivienda gratuita.*

*La diferencia es muy amplia (supera los diez puntos) en cuanto al uso del hotel, fundamentada por la ausencia en Euskadi de una oferta turística de veraneo u ocio de media o larga duración.*

EAE aukeratu duten turistak, ostatu-motaren arabera. 2001-2003 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por tipo de alojamiento. Evolución anual 2001 - 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten turistak, ostatu-motaren arabera. 2001-2003 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por tipo de alojamiento y modo de tranporte. Evolución anual 2001 - 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten turistak, ostatu-motaren eta garraiobidearen arabera. 2001-2003 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por tipo de alojamiento. Comparación Estado - C.A. País Vasco 2001 - 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten turistak, ostatu-mota eta bizilekuaren arabera 2003
*Turistas con destino en el País Vasco por tipo de alojamiento y lugar de residencia 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Jatorri guztietakoek hotela dute gustukoen ostatu hartzeko orduan. Hala ere, gainontzeko ostatuetan aldeak daude bisitarien jatorriaren arabera; adibidez, Frantziako turismoak (garrantzitsuena) ematen die indarra gainontzeko ostatuei (kanpina, karabana...), eta doako etxebizitzak hirugarren tokia hartzen du euren artean. Hala ere, turista-kopuruaren aldetik, hirugarren multzoa osatzen du. Beste herrialde batzuetatik etorritako bisitarien artean, berriz, doako etxebizitzak hotelaren antzeko sendotasuna hartzen du kopuruan, bestelako ostatuen gainetik.

Alokatutako etxebizitza, kopuru txikian bada ere, frantsesek, britainiarrek eta alemaniarrek aukeratzen dute, baina lehenengoentzat pisu txikia du eta gainontzeko bientzat, berriz, proportzioan aukera garrantzitsua da.

*No existe ningún origen para el que el hotel no se constituya como el alojamiento preferido. Si embargo, sí existen diferencias entre el resto de alojamientos que dependen del país de residencia. Así, el turismo francés, el más importante, es el que da fuerza en el País Vasco a los otros alojamientos (camping, caravana...), pasando entre ellos la vivienda gratuita a un tercer lugar, que aún así constituye el tercer grupo por volumen de turistas. Entre los procedentes de Otros países, por el contrario, la vivienda gratuita toma una potencia muy cercana en número de elecciones al hotel, por encima de los otros alojamientos.*

*La vivienda alquilada, en su escaso volumen, es elegida por franceses, británicos y alemanes, pero mientras para los primeros representa un escaso peso, para los otros representa una opción proporcionalmente importante.*



# EAE aukeratu duten txangozaleak

# *Excursionistas con destino en el País Vasco*

## Garraiobidea

## *Modo de transporte*

EAEko bisitarien ezaugarri estruktural deigarriena txangozaleek osotasunaren aldean duten pisu handia da; izan ere, kolektibo horretan, 10 bisitatik bederatzi sartzen dira.

Gainera, oso kolektibo bizia da, etengabe hazten ari dena eta arrazoi oso desberdinetakoa. 2003. urtean, gainera, txangozaleen kopuruak hazkunde nabarmena izan du, 2002. urtean baino %9,3 gehiago (portzentaje adierazgarria) eta, horrenbestez, 591.576 bisitari gehiago.

*El rasgo estructural más llamativo del visitante extranjero en el País Vasco es el elevado peso que presentan los excursionistas sobre el conjunto. Este colectivo integra nueve de cada 10 visitas.*

*Se trata además de un colectivo muy vital, en continuo crecimiento muy variado en sus motivos. El año 2003 ha registrado además un fuerte crecimiento en el número de excursionistas, un significativo 9,3% más que el año 2002, con un crecimiento de 591.576 visitantes.*

EAE aukeratu duten txangozaleak, garraiobidearen arabera. 2001-2003 hilen arteko bilakaera
*Excursionistas con destino en el País Vasco por modo de transporte. Evolución mensual 2001 - 2003*

| | | Guztira / *Total* | Sarbidea / *Vía de acceso* | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Errepidea / *Carretera* | Aireportua / *Aeropuerto* |
| 2001 | **Guztira / *Total*** | **6.273.513** | **6.271.738** | **1.775** |
| | Urtarrila/*Enero* | 417.455 | 417.455 | 0 |
| | Otsaila/*Febrero* | 431.787 | 431.550 | 237 |
| | Martxoa/*Marzo* | 410.936 | 410.896 | 40 |
| | Apirila/*Abril* | 506.670 | 506.579 | 91 |
| | Maiatza/*Mayo* | 538.923 | 538.631 | 292 |
| | Ekaina/*Junio* | 490.193 | 490.151 | 42 |
| | Uztaila/*Julio* | 727.561 | 727.293 | 268 |
| | Abuztua/*Agosto* | 891.833 | 891.597 | 236 |
| | Iraila/*Septiembre* | 483.262 | 483.233 | 29 |
| | Urria/*Octubre* | 451.959 | 451.791 | 168 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 418.484 | 418.335 | 149 |
| | Abendua/*Diciembre* | 504.447 | 504.226 | 222 |
| 2002 | **Guztira / *Total*** | **6.366.924** | **6.364.427** | **2.497** |
| | Urtarrila/*Enero* | 409.785 | 409.741 | 44 |
| | Otsaila/*Febrero* | 414.969 | 414.871 | 98 |
| | Martxoa/*Marzo* | 494.996 | 494.904 | 92 |
| | Apirila/*Abril* | 499.673 | 499.387 | 286 |
| | Maiatza/*Mayo* | 508.679 | 508.614 | 65 |
| | Ekaina/*Junio* | 483.893 | 483.559 | 334 |
| | Uztaila/*Julio* | 635.689 | 635.392 | 297 |
| | Abuztua/*Agosto* | 880.529 | 880.071 | 458 |
| | Iraila/*Septiembre* | 560.934 | 560.464 | 470 |
| | Urria/*Octubre* | 506.425 | 506.300 | 125 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 452.848 | 452.724 | 124 |
| | Abendua/*Diciembre* | 518.505 | 518.401 | 104 |
| 2003 | **Guztira / *Total*** | **6.958.499** | **6.953.247** | **5.252** |
| | Urtarrila/*Enero* | 449.166 | 449.100 | 66 |
| | Otsaila/*Febrero* | 411.865 | 411.734 | 131 |
| | Martxoa/*Marzo* | 510.994 | 510.129 | 865 |
| | Apirila/*Abril* | 529.652 | 529.216 | 436 |
| | Maiatza/*Mayo* | 573.945 | 573.806 | 139 |
| | Ekaina/*Junio* | 447.711 | 447.217 | 494 |
| | Uztaila/*Julio* | 713.641 | 713.269 | 372 |
| | Abuztua/*Agosto* | 1.036.994 | 1.036.090 | 904 |
| | Iraila/*Septiembre* | 592.930 | 592.076 | 854 |
| | Urria/*Octubre* | 534.479 | 534.031 | 448 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 571.974 | 571.674 | 300 |
| | Abendua/*Diciembre* | 585.148 | 584.905 | 243 |

**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Atzerriko txangozaletasuna fenomeno frantsesa da, bisiten ia %100 baitira. Gainontzeko jatorriak, beraz, naziotasun horretatik oso urruti daude, aireportu bidezko bisitetan izan ezik.

Txangozaleen etorrerak urte osoan gertatzen dira eta urte-sasoiko profil handikoak dira, etorrera gehienak uztail eta abuztukoak baitira; gutxienak, berriz, urtarrilean eta otsailean.

Urte-sasoi altuen eta baxuen arteko aldeak ez dira turistetan dauden bezain nabarmenak (abuztuko hilabetean urtarrilean edo otsailean baino bi aldiz gehiago iristen dira; turistetan, ordea, abuztuko etorrera-kopurua urteko lehenengo hilabeteetakoa baino lau aldiz handiagoak). Nolanahi ere, aldeak oso handiak dira.

Urte-sasoikotasunerako joera hori, gainera, urtetik urtera areagotuz joan da; adibidez, 2003an, uztail eta abuztuan izan dira bisitari-hazkunde handieneko hilabeteak.

*El excursionismo extranjero es un fenómeno francés, con cerca del 100% de las visitas. Cualquier otro origen queda por tanto muy alejado del peso de esta nacionalidad, salvo cuando se da por vía aeroportuaria.*

*Las llegadas de excursionistas se distribuyen a lo largo del año respetando un perfil marcadamente estacional, con máximos de entradas en los meses de julio y agosto, y mínimos en los meses de enero y febrero.*

*Estas diferencias entre los meses de la temporada alta y los de la temporada baja son menos acusadas que las que presentan los turistas (en el caso de los excursionistas las entradas del mes de agosto son el doble que las de enero o febrero, mientras en el caso de los turistas la cifra de entradas de agosto es cuatro veces superior a la de los primeros meses del año), pero con todo son muy acusadas.*

*Esta tendencia hacia la estacionalidad va aumentando además de año en año, siendo por ejemplo en 2003 los meses de julio y agosto los que recogen en mayor medida los incrementos de visitantes existentes.*

EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangozaleak. 2001-2003 urte arteko bilakaera
*Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco. Evolución anual 2001 - 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Aireportu bidezko etorreren garrantzia hutsaren hurrengoa da errepide bidez egiten direnen aldean. Nolanahi ere, biak bat datoz urtetik urterako hazkunde nabarmenean (bereziki, 2003 urtean).

*El peso del acceso vía aeropuerto resulta insignificante frente a las entradas por carretera. En todo caso comparte con esta vía un fuerte crecimiento año a año, y de manera especial durante 2003.*

EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangozaleak. 2000-2003 urte arteko bilakaera
*Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco. Evolución anual 2000 - 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangozaleak, bizilekuaren arabera. 2000-2003 urte arteko bilakaera
*Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por lugar de residencia. Evolución anual 2000 - 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

## Bisiten arrazoiak eta maiztasuna

## *Motivos y frecuencias de las visitas*

Erosketak eta aisialdia dira EAErako txangoak eragiten dituzten bi arrazoi nagusiak, eta bakoitzak hiru milioi inguruko bisita-kopuruak eragiten ditu. Erosketen kasuan, azken urteak urte arteko hazkunde garrantzitsua izan du kopuruan: milioi erdi bisita, hainbat urte etengabe behera egin ondoren. Izan ere, arrazoi hori izan da 2003an EAEn txangozaleek edukitako bizitasunaren eragile nagusia.

Lan- eta ikasketa-arrazoiek erraz eragiten dituzte 600.000 bisita baino gehiago (guztizkoaren %9) eta, erosketekin batera, txangozaleen guztizko kopuruaren hazkundea ekarri dute (2002arekiko 75.000 bisita).

Erosketak, familia-bisitak eta aisialdia dira txangozaleen kopuru handiena eragiten duten arrazoiak eta, oro har, atzerriko txangozaleen urte-sasoikotasuneko ereduari lotzen zaizkio.

Uda eta, batez ere, abuztua nabarmentzen dira bisitari horiek hartzeko orduan. Hala ere, aisialdiagatik etorritako bisitarietan ez bezala, erosketak edo familia-bisitak egiten dituztenek udazkenean eta, bereziki, eguberrietako ospakizun-garaian nabarmen eusten diote mailari.

Kontrako aldean, bestelako arrazoiengatik edo negozioengatik etorritako txangozaleak ez zaizkio ia urte-sasoiko ereduari lotzen, salbu eta, izatekotan, urte bukaerako hilabeteetako ekarpen txiki bat negozioen kasuan.

*Compras y ocio constituyen los dos grandes motivos que motivan la realización de excursiones en el País Vasco, con volúmenes de visitas alrededor de los tres millones para cada uno de ellos. En el caso de las compras, el último año ha registrado un importante crecimiento interanual en su volumen de alrededor de medio millón de visitas, tras varios años de descenso continuado. De hecho, este motivo es el principal causante de la vitalidad del excursionismo en el País Vasco durante el curso 2003.*

*Los motivos de trabajo y estudios, que superan ya desahogadamente las 600.000 visitas (9% del total), acompañan a las compras en la generación de estos incrementos en el volumen total de excursionistas experimentado, con un crecimiento respecto de 2002 de 75.000 visitas.*

*Compras, visita familiar y ocio, los motivos que generan un mayor número de visitas excursionistas, siguen el patrón de estacionalidad que definen en términos generales el excursionismo extranjero en el País Vasco.*

*El verano, y de modo especial agosto, se destaca para acoger visitantes por estos motivos. Sin embargo, a diferencia de los visitantes por ocio, los que realizan compras o visitas familiares mantienen niveles importantes en otoño y, de manera particular, alrededor de las celebraciones navideñas.*

*En el lado contrario, excursionistas por otros motivos o por motivos de negocios, no presentan apenas patrones de estacionalidad, salvo, en todo caso, un ligero apoyo en los meses finales del año en el caso de los negocios.*

EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangozaleak, bisitaren arrazoiaren arabera. 2000-2003 urte arteko bilakaera
*Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por motivo de la visita. Evolución anual 2000 - 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten txangozaleak, bisitaren arrazoiaren arabera. 2003 hilen arteko bilakaera
*Excursionistas con destino en el País Vasco por motivo de la visita. Evolución mensual 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Txangozale frantsesak iraunkorrak izaten dira EAEko euren bisitetan. %40 gutxienez astean behin datoz, eta soilik %27 datoz urtean behin edo gutxiago. Beraz, bisitak maiz xamar egiten dituzte.

Joera horretan, noizean behingo bisiten aldean, maiztasun handiko bisiten hazkundea antzeman da 2002tik 2003ra. Zehazki, %2k gehiago hilabetean gutxienez bisita bat egin dute.

*El excursionista francés tiende a ser constante en sus visitas al País Vasco. Un 40% viene al menos 1 vez por semana, y tan solo un 27% viene solo una vez al año o con menor frecuencia. Existe por tanto una cierta habitualidad en las visitas.*

*Bajo esta tendencia, se vislumbra un cierto aumento de las frecuencias altas de visitas sobre las visitas ocasionales en el año 2003 frente al 2002. En concreto, un 2% más de ellos realiza su visita al menos una vez al mes.*

EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangozaleak, bisitaren maiztasunaren arabera. 2000-2003 urte arteko bilakaera
*Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por frecuencia de la visita. Evolución anual 2000 - 2003*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Bisiten arrazoiaren eta maiztasunaren artean harreman estua dago: ikasketa- eta lan-bidaien eguneroko maiztasunak duten pisu erlatibo handiagoak hori agerian uzten du. Bi kasuotan, egunero estatu arteko muga pasatzen duten atzerriko txangozaleak %70etik eta %80tik gora daude (ikasketa- eta lan-arrazoiak, hurrenez hurren); izan ere, mugaren bi aldeek metropoli-ingurune uniforme erraldoi bat osatzeko joera dute. Eguneroko maiztasunean, halaber, familia -edo adiskide-bisitek zein osasun-tratamenduek pisu erlatibo garrantzitsua dute.

*La intensa relación existente entre el motivo de las visitas y la frecuencia de las mismas queda de manifiesto por el mayor peso relativo que tienen en el caso de los viajes de estudio y trabajo la frecuencia diaria; en ambos casos el porcentaje de excursionistas extranjeros que cruzan la frontera todos los días supera el 70% y el 80% respectivamente. Ambos lados de la frontera tienden a configurarse en este sentido como un entorno metropolitano uniforme. La frecuencia diaria también tiene un peso relativo importante en el caso de los viajes para la visita a familiares o amigos y por tratamientos de salud.*

EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangozaleak, bisitaren arrazoiaren eta maiztasunaren arabera 2003
*Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por motivo de la visita y frecuencia de la visita 2003*










**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Errepidez bidaiatzen duten txangozaleek aukeratutako lekua 2003
*Destino de los viajes de los excursionistas por carretera 2003*







**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.






Kopuruan garrantzi handiena hartzen duten desplazamenduek, gehienetan osagai ludikoak dituztenak (adibidez, erosketak, zerbitzu pertsonalak..., baina ez justu aisialdia), asteroko maiztasuna dute, batez ere asteburuko egunetan burututakoak.

Aldiz, aisialdiagatik datozen bisitariak ez dira hain iraunkorrak edo ohikoak EAEko euren bisitetan. Urtean behin edo gutxiago egiten dituzte euren bisitak, nahiz eta maiztasuna nahiko sakabanatuta dagoen.

Gipuzkoak txangozaletasunaren zati handiena hartzen du, Bizkaiak zati txiki bat hartzen duela eta Arabak beste bat txikiagoa.

Eskualdeka, Bidasoa Beheak du komunikazio-maila handiena (%65), Donostialdea, mugatik gertuen dagoen hurrengo ingurunea, atzean duela (%25). Mugatik dagoen distantzia, argi eta garbi, faktore erabakigarria da txangozaleen bisitentzat, eta soilik neurri batean Donostiak hausten du nagusitasun hori inguruko udalerrien gain, baita Bilboren presentziak, oso txikia bada ere, ingurunetik isolatuta. Izan ere, Bilboren eragina batez ere bere kultur eskaintzaren ondoriozkoa da.

*Los desplazamientos más importantes por volumen, normalmente aquellos con componentes lúdicos, como son las compras, los servicios personales, pero no el puramente de ocio, presentan una frecuencia semanal, coincidiendo generalmente con alguno de los días del fin de semana.*

*Por el contrario, el visitante por ocio es el que presenta un menor nivel de constancia o habitualidad en sus visitas al País Vasco. Una vez por año o menos son las frecuencias más habituales entre ellos, si bien su frecuencia de visita se halla muy repartida.*

*Gipuzkoa recoge la mayor parte del excursionismo, con una pequeña parte para Bizkaia y otra muy pequeña para Araba.*

*Por comarcas, el Bajo Bidasoa presenta el mayor grado de comunicación, con un 65 %, seguido por Donostialdea (25%), la siguiente área desde la frontera. La distancia desde ésta se configura como un factor claramente determinante para la visita excursionista, solo en alguna medida roto por la preponderancia de Donostia sobre los municipios de su entorno y por la presencia, aunque mínima, del municipio de Bilbao, como una isla respecto a su entorno. De hecho, la incidencia de Bilbao viene sobre todo determinada por el atractivo de la oferta cultural de Bilbao.*

Errepidez bidaiatzen duten txangozaleek aukeratutako lekua, bisitaren arrazoiaren arabera 2003
*Destino de los viajes de los excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por motivo de la visita 2003*

























**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Irun da, alde nabarmenaz, txangozale gehienen hartzaile, euren %59 hain zuzen ere. Horrek adierazten du muga arteko eskualdeen arteko harremana oso bizia dela, etxebizitzaren, lanaren, ikasketen, erosketen eta aisialdiaren arloan oso lotuta baitaude.

Txangozaleen artean, ez dago bisita-arrazoiaren araberako eskualdeen arteko sakabanaketa handirik. Irun, Donostia eta, neurri txikiagoan, eskualde mugakideak dira hartzaile nagusiak. Hala ere, bisita lanarengatik egiten denean, estatu arteko mugatik urruneko herri batzuk ere hartzaileak dira, bereziki, Bilbo. Irun eta ondoko eskualdeek jasotzen duten bidaiari-kopuruak agerian uzten du mugaz bi aldeen artean konexio handia dagoela.

Testuinguru horretan, familia-arrazoiengatik txangozaleak nolabait ere sakabanatu egiten dira, betiere estatu-mugako eskualdeak bisiten jomuga izateko kontzentrazio handia egonik. Lurraldeetako hiriburuetara eta Gipuzkoako barnealdera ere badago nolabaiteko bisita-kopuru bat. Irun eta Donostiak hartzen dituzte ikasketengatik etorritako txangozale guztiak (Gipuzkoako hiriburua arinki nagusitzen da).

Erlijio-arrazoiengatik egindako bisitei dagokienez, horiek Irunera biltzen dira gehien, mugatik gertu dagoelako, baita Oñatira (Arantzazuko santutegia bertan dago) eta Azpeitira ere (Loiolako San Inazioren monasteriora).

Irunek, halaber, hartzen ditu erosketa-arrazoiak direla-eta egindako bisita gehienak (%81). Soilik Donostia lehiatzen da pixka bat merkatu horrengatik, bere eraginak Bidasoa Behe osoa hartzen duen arren. Gainera, ingurune hau, Irun, Donostia eta Pasaia batez ere, osasun-tratamenduen gune dira.

Aisialdiko txangozaleen zati handiena Donostia eta Irunera biltzen da (%75), eta bi udalerrien artean ez dago ia alderik. Hondarribiak ere, askoz gutxiago bada ere, bisita-ekarpen adierazgarria dauka. Gainontzeko bisita-ekarpena kostara eta Gipuzkoako barnealdera hedatzen da. Bilbok hartzen ditu txangozale horietako batzuk (%3), kultur turismoan espezializatutako eskaintza dela eta.

*Irún es con mucho el municipio receptor de la mayor parte del excursionismo, con un 59% de éste. Ello denota una relación muy vital entre las comarcas de ambos lados de la frontera, muy interrelacionadas a nivel de vivienda, trabajo, estudios, compras y ocio.*

*Ningún motivo de visita genera una elevada dispersión territorial de los excursionistas. Irún, Donostia, y en menor medida sus comarcas adyacentes son los receptores principales. No obstante, cuando la visita viene determinada por el trabajo, algunas localidades alejadas de la zona fronteriza, especialmente Bilbao. En general, y con la excepción de Irún, las capitales recogen muchos más excursionistas por este motivo que sus territorios. El volumen de viajeros que recogen Irún y sus comarcas lindantes revela la elevada interconexión a ambos lados de la línea fronteriza.*

*Dentro de este contexto, también los motivos familiares generan una cierta dispersión entre los excursionistas, aunque siempre con una gran concentración en las comarcas fronterizas como destino de la visita. Las capitales de los territorios y el interior de Gipuzkoa adquieren cierta presencia.*

*Irún y Donostia recogen todos los excursionistas por estudios, con cierta prevalencia de la capital guipuzcoana.*

*En cuanto a las visitas por motivos religiosos, éstas se concentran en Irún, en orden a su cercanía a la frontera, y en Oñate, por acoger en su territorio el santuario de Aránzazu, y Azpeitia, con el monasterio de San Ignacio de Loyola.*

*Irún recoge también la mayoría de visitas por compras (81%). Solo Donostia compite mínimamente por este mercado, cuya influencia abarca no obstante a toda la comarca del Bajo Bidasoa. También esta zona, aunque centrada en los municipios de Irún, Donostia y Pasaia, recoge los motivos de tratamiento de salud.*

*La mayor parte de los excursionistas por ocio se concentra en Donostia e Irún (75%), con escasa diferencia entre ambos municipios. Hondarribia, a un nivel muy inferior también cuenta con un significativo aporte de visitas. El resto se extiende por la costa e interior guipuzcoanos. Bilbao cuenta una cierta presencia de estos excursionistas (3%), motivada por su oferta especializada de turismo cultural.*



## Errepidez bidaiatzen duten txangozaleek EAEn aukeratutako lekua, bisitaren maiztasunaren arabera 2003
## *Destino de los viajes de los excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por frecuencia de la visita 2003*






















**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.



Nolabait ere, Bilbo txangozaleen uharte hartzaile baten moduan jokatzen du eta ingurune nagusiari gailentzen zaio bisitetarako arrazoia lana, aisialdi, erosketa, familia edo beste zer edo zer denean; ez, ordea, ikasketak edo erlijioa denean.

Txangozaletasuna Frantziako Estatuko mugarekiko distantziari oso lotuta dago; izan ere, mugak txangozaleak barreiatzen ditu bere inguruan eta indar txikiagoz herri bat harengandik urrunago egon ahala. Horrenbestez, Bidasoa Behea eta Donostialdea dira txangozaleen gehiengoaren oinarrizko merkatua, kostako eta Gipuzkoako barnealdeko ingurune batzuk ere eraginpean egonik. Soilik Bilbo eta, gutxi bada ere, Gasteiz dira arauari ihes egiten dioten salbuespenak.

Logika horri lotuz, Irun da txangozale gehien hartzen dituena bisitari-mota edozein dela ere, baina joera hori berretsi egiten da, halaber, bisitak egunerokoak edo asterokoak direnean. Kasu horietan, %64 eta %71 hartzen ditu, hurrenez hurren.

Bisitaren maiztasuna gutxitu ahala, Donostiak garrantzi handiagoa hartzen du txangozaleen hartzaile moduan, urtebetean behin baino gutxiagoko bisita-maiztasunen %40 hartzeraino. Era berean, neurri askoz txikiagoan bada ere, Hondarribi eta Bilbo udalerriak eredu horri lotzen zaizkio, urtebetean behin baino gutxiagoko bisitetan, hurrenez hurren, %7 eta %2ko portzentajeetara iristeraino, eta antzeko portzentajeetara urtebetean behingoetan.

Hori hala da maiztasun altuenak lan-ikasketa- eta, batez ere, erosketa-arrazoiei lotuta daudelako. Arrazoi horiek, oro har, mugaren bi aldeen arteko harreman handia sustatzen dute, eta oso eskualde edo herri jakinetan. Aldiz, bisitari-kopuru handiena sortzen duten arrazoien artean, aisialdiak, bidaiariak sakabanatzeko joera handiagoa du. Donostiak, bereziki, garrantzi handia hartzen du txangozale-mota horretan, Bilbo ere udalerri bisitatuetan agertzen den bezala, bertako kultur eskaintza espezifikoa eta oso bereizia dela eta, nahiz eta maiztasun nahiko txikiak eragiten dituen.

*De alguna manera, Bilbao se comporta como una isla receptora de excursionismo que cobra presencia fuera del área dominante cuando las visitas son por motivos de trabajo, ocio, compras, visita familiar u otros motivos en general, pero no así por estudios o por motivos religiosos.*

*El excursionismo se asocia mucho con la distancia a la frontera francesa. Esta actúa irradiando excursionistas con menor fuerza cuanto más lejana se sitúa una localidad con respecto a ella, de modo que Bajo Bidasoa y Donostialdea constituyen el mercado básico de la mayor parte del excursionismo y que cierta influencia viene a alcanzar a áreas de la costa e interior guipuzcoanos. Solo Bilbao y, poco, Vitoria, se constituyen como islas que escapan a esta regla.*

*Siguiendo esta lógica, Irún es el gran receptor de excursionistas para cualquier tipo de visitante en orden a su frecuencia, pero ello es especialmente cierto cuando las visitas son cotidianas o semanales. En estos casos recoge hasta un 64% y un 71% respectivamente.*

*A medida que la frecuencia de la visita disminuye Donostia va ganando presencia como receptor de excursionistas, hasta llegar a un 40% de ellas entre aquellos que tienen una frecuencia menor a la anual. Del mismo modo, aunque en una medida mucho menor, las localidades de Hondarribia y Bilbao siguen este mismo patrón, llegando a alcanzar porcentajes del 7% y del 2% respectivamente en las frecuencias menores a una vez al año, y similares porcentajes en las anuales.*

*Ello es así porque las frecuencias más elevadas se asocian a los motivos de trabajo, estudios y, sobre todo, compras, que, en términos generales, promueven una gran vinculación a ambos lados de la frontera y en un ámbito muy local o comarcal. Por el contrario, de entre los motivos que generan mayor número de visitantes, los de ocio tienden más a la dispersión de los viajeros. Donostia especialmente, adquiere gran relevancia para este excursionista, del mismo modo en que Bilbao aparece entre las localidades visitadas en orden a su oferta de ocio cultural específica y altamente diferenciada, pero que fomenta frecuencias más bien reducidas.*

# KLIK BAT EGIN ETA TURISMOARI BURUZKO INFORMAZIOA ESKURA IZANGO DUZU

# INFORMACIÓN DEL TURISMO AL ALCANCE DE UN CLICK



## www.euskadi.net/turismo

**Euskal TURISMOAREN SEKTORERA zuzendutako WEB PROFESIONALA**

- Aldian Ekonomia Sustatzeko Erakunde Plana 2000-2003
- Informazio interesgarria
- Euro-behategia
- Euskal Turismoari buruzko estatistikak
- Sailak ematen dituen laguntzak
- E-Delfos. Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien laguntza-bilatzailea
- Hainbat ikastaro eta beka
- TURISMOKO WEBarekin estekadura
- Kalitatea Turismo-Sektorean

**La WEB PROFESIONAL para el SECTOR TURÍSTICO vasco**

- Plan Interinstitucional de Promoción Económica 2000-2003
- Información de interés
- Euro-observatorio
- Estadísticas del Turismo Vasco
- Ayudas del departamento
- E-Delfos. Buscador de ayudas del Gobierno Vasco y Diputaciones
- Cursos y Becas
- Enlace con la WEB TURÍSTICA
- Calidad en el Sector Turístico

## www.euskadituriskmoa.net

## www.paisvascoturismo.net

**GURE BIDAIARIENGANA zuzendutako TURISMOKO WEB gunea**

- Ostatuak
- Mapak
- Garraioa
- Aisialdia
- Gastronomia
- Kultura
- Bidezidorrak
- Biltzarrak eta Azokak
- Kirolak eta natura

**La WEB TURÍSTICA para NUESTROS VIAJEROS**

- Alojamientos
- Mapas
- Transportes
- Ocio
- Gastronomía
- Cultura
- Rutas
- Congresos y Ferias
- Deportes y Naturaleza

Atsegin handiz
Euskadi
PAIS VASCO
Con mucho gusto

Lanketa / Elaboración: ARALDI
Fotokonposaketa / Fotocomposición: mccgraphics (planta Elkar)
Inprimaketa / Impresión: mccgraphics (planta Elkar)

Argibide gehiago behar izanez gero:
Harremanetarako telefonoa: 945 01 99 61 / Fax: 945 01 99 31
e-mail: publituris@ej-gv.es
Web: www.eustat.es
www.euskadi.net/turismo I Euskal turismoaren estatistika orokorrak

Para más información:
Teléfono de contacto: 945 01 99 61 / Fax: 945 01 99 31
e-mail: publituris@ej-gv.es
Web: www.eustat.es
www.euskadi.net/turismo I Euskal turismoaren estatistika orokorrak

Lege Gordailua / Depósito Legal: SS-1167/2000

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz